

Zinema

Superzebraman

Super heroi zuri-beltza

Munduko hirugarren zinemagintza industriarik handiena aukeratu du Javier Urtasun iruindarrak *Superzebraman* lehen filma grabatzeko kokalekutzat: Nollywood. Halakorik egin duen lehen euskal herritarra da, eta baita diasporakoa ez den lehen europarretako bat ere.

Zebra da grabatu duen filma, Europarako eta Nigeriarako pentsatua.



IÑIGO ASTIZ

Argazkiak: *Superzebraman*

URTARRILEAN Nigeriara oporretan joatea pentsatu, Internet bidez Nollywood ezagutu –Nigeriako bideogintza industria; ikus ARGIA-ren 2164. zenbakian gaiari eskaini genion erreportajea–, haren funtzionamenduari lilaraturik geratu, eta han pelikula bat egitea erabaki. Jarraian joan ziren guztiak Javier Urtasunentzat (Iruñea, 1980). Erabakia hartu eta hamar bat egunera utzi zuen lana filmari ehuneko ehunean heltzeko. Zortzi hilabete dira orduz geroztik, eta abuztuan Lagosen zazpi egune-

tan grabazio lanak bukatuta, pelikula editatzea baino ez zaio falta orain. Urtea bukatu baino lehen egongo da *Superzebraman* filma kalean. Klean baino gehiago, gainera; kale-klean egongo da, kaleko saltzaileen bidez egingo baitu lanaren banaketa. “Proiektu konplikatu izan da, egia esan”, dio Urtasunek, “ez soilik filma Nigerian grabatu dudalako, baita Nollywooden ere. Finantzazio ere, produkzio ere, eta baita banaketa ere”.



Michael da *Superzebraman*eko pertsonaia nagusia. Lagoseko musika taberna bateko tabernaria da bera eta Niurka izeneko abeslari berriaz seko maitemintzen da. Niurka, baina, emakume hotz eta kalkulatzailea da.

Bollywooden atzetik. Primeran funtzionatzen du. Oso argi dute beraien nortasuna eta ez dute behar inoren diru-laguntzarik, edo inork zinema sostengatzerik. Primerakoa da hango zinemagintzaren osasuna”.

Aurkitu zuen lagunik Urtasunek, halere, asmoa aurrera eramateko. Jonathan Haynes, Nollywood fenomenoaz aztertu zuen lehen aditua, Saastje Geerts, *Nollywood Abroad* dokumentalaren egilea, eta Mane Cisneros, Tarifa-ko (Espainia) Afrikar Zinema Festibalaren zuzendaria izan dira lagun horietako batzuk. “Nire asmoa kontatu, eta asko gustatu zitzairen”, dio. “Bat egin zuten berehela *Superzebraman*en mezuarekin. Afrikan ere kontuan hartzeko moduko ereduak badirela dioen mezuarekin, alegia”.

Grabazio garaiko arazoak

Haien bidez heldu zen Nollywoodeko produktoreekin harremanetan jartzera, eta haien zubi lanari esker lortu zuen Shan George *Superzebraman*en produktorearekin elkartzea. Georgeren bidez ezagutu zituen Urtasunek Nigeriako teknikari eta aktoreak. Ez nolanahiko aktoreak, gainera, Miss Sierra Leone eta Sam Loco Nollywoodeko izarrek hartu baitute parte, besteak beste, Urtasunen filmean.

Eta hala ere, ez da lan erraza izan. Lagosen aktore, zuzendari, gidoigile eta produktore gisa aritu behar izan baita Urtasun. Eta nahiko lan aurrekontuari hitzartutako horretan eusten. “Oihu franko egin behar izan nuen”, aitortu du. “Bigarren egunean produkzioa bere horretan utzi, eta etxera itzuliko nintzela egin nien mehatxu, eta ordainketak filma bukatzean egingo nituela esan behar izan nien. Halako trikimailuen bidez lortu dut aurrekontua neurritz kanpo ez igotzea. Lehen egunean zuzendaria ez zen azaldu, leku berean grabatzekoak ziren eszena guztiak jarraian grabatuarazteko ere nahiko lan, ez zen hurrengo eguneko grabaketa lanik aurreikusten... Zuzendaritzari dagokioenez, egia da, alde handia dagoela Nigeria eta Europa artean. Azkenean egin egin dugu, ordea”. Kanpo faktoreak ere badaude, gainera. “Permisoak eskatu behar direnero, aitzakia ederra dute Nigeriako gobernuak ordezkari ustelek beren sailtxoa lortzeko. Hara grabatzera joandako europar zuriaren esperientziak orain arte beti egon dira proiektu handiren batek sostengatuta. Dela Arte katea edo dela BBC. Ni bakar-bakarrik joan nintzen, eta zaila izan da dena, horregatik”.

Arazoak arazo, baina, Nollywooden sinisten jarraitzen duela dio. “Ehuneko ehunean”,

Atzean inolako erakunde sonaturik gabe Nollywooderara joan den bakarretarikoa da Urtasun. Horregatik, *Superzebraman* ez da filma soila izango. Filmaren errodejeari buruzko dokumentala ere ari da grabatzen Urtasun, eta udaberri alderako izan nahi du kalean. Nigeriara eginiko bidaia eta filmaren prestaketa lanak azalduko dira bertan.

Nigeriara joan eta film baten errodejeari ikustea zen Urtasunen lehen asmoa, baina Nollywoodi buruzko informazioa jasotzen joan ahala eta film baten aurrekontua zinez txikia izan zitekeela oharturik, ikusteko asmotan zen errodejeari hori bere filmarena izan zitekeela pentsatu zuen. “Nollywoodi buruz ikusi nuen dokumental batean esaten zenez, sei egunez eta 1.200 euro ingururen truke egin zitekeen film bat Nigerian. Zenbaki horiek oso pizgarriak izan baziren ere, azkenean, filma egitea hori baino askoz ere garestiagoa izan da”. Eta dena konplikatu du horrek. Bere aurrezkiekin aski ez, eta handik eta hemendik dirua lortzen aritu behar izan du. Diru-laguntzarik ez du izan.

“Nollywooden izpiritua errespetatu nahi nuen”, dio Urtasunek, “eta han diru-laguntzarik gabe egiten dituzte filmak”. European, baina, zinemagileen artean diru-laguntzak beste konturik ez dela izaten dio, eta jende askori kosta egin zaiola, horregatik, bere proiektua ulertzea. “Nigeriako industria eredu bati buruz ari gara, Afrikako eredu batez, eta jendea mesfidatu zen horregatik. Nollywoodeko industrian urtean 2.700 film egitera heldu dira, ordea, eta munduko hirugarren zinema industriadik handiena da, Hollywood eta

zehaztu du. “Beste kontu bat da nire esperientzia pertsonalean, produkzioarekin arazoak izan ditudala. Badago askoz ere jende profesionalagoa ere, baina, noski, haiekin lan egiteak asko igotzen du aurrekontua”.

Ingelese grabatu dute filma, eta gaztelania-
tik ingelesera itzuli behar izan zuen Urtasunek
gidoi guztia. Itzulpena ez zen hizkuntzarena
soilik izan. Hango pentsaerara itzuli behar
izan ditu gauza asko. “Han lagun izan genuen
nigeriar batek, bere Mercedesean joan arren,
eta bere ordenagailu mugikorra izan arren,
azaldu zigun inolako harridurarik gabe, kon-
trolla egin zigun poliziak magia beltzarekin egi-
ten zuela lan, eta drogarik-edo izanez gero,
berotu egiten zitzaion eraztun baten bidez
jakiten zuela. Zinez sinesten dute magia bel-
tzean, mirakuluetan... Bestela hitz egin behar
izaten denaren bikoitza hitz egin behar izaten
da, maiz, horregatik”.

Nigeriar zuri-beltza

Urtasunek dioenez, nigeriarren-
tzat europar zinema oso asperga-
rria da. “Gutxienez pare bat
transformazio ez dituen edozein
film aspergarri egiten zaie”.

*Superzebraman*en gidoia gustatu zaiela dio, hale-
re, “azalaren kolorearen arazoa zuzen-zuze-
nean tratatzen duelako”. “Ni neu naiz akto-
rea”, dio Urtasunek, “eta, noski, ni zuria naiz.
Zuri batek Nigerian parte hartu ahal izan
dezan, bi aukera daude. Edo zuriaren inguru-
ko beltz guztiak multimegadirudunak dira,
edo fantasia da. Ez genuen multimegadiru-
nei buruzko istoriorik egin nahi, eta, beraz,
zuri baten presentzia justifikatzeko zer edo zer
behar genuen. Zer? Ba zuri hori, benetan, bel-
tza dela esan. Zuri izan arren, filmean nik
neuk ere integratu egin behar nuela da guztia-
ren abiapuntua”.

Michael da *Superzebraman*eko pertsonaia
nagusia. “Lagoseko musika taberna bateko
tabernaria da bera eta Niurka izeneko abeslari

Urtea amaitu baino lehen egongo da *Superzebraman* kalean; kale-kalean, kaleko saltzaileen bidez banatuko baita filma

berriaz seko maitemintzen da. Niurka, baina,
emakume hotz eta kalkulatuzailea da, eta gizon
zuriekin soilik ateratzen da, Europara heldu
eta izar bihurtu ahal izateko. Michaellek, oso
pobrea izaki, badaki ezinezko amodioa dela
berea, eta frustrazioak zoramenera darama.
Mozkortu egingo da egun batez eta zebra
batek aldi berean zuri eta beltz izateko ahal-
menak emango dizkio. Pixkanaka ez da gehia-
go ez zuri ez beltza izango, baizik eta giza-
zebra bat. Eta arazo handia izango da hori,
ehiztaririk odolzaleenen paradisu den konti-
nente batean. Hori da *Superzebraman*, zuriaren
eta beltzaren arteko izakia, grisik, erdibiderik
eta pertsonalitate propiorik onartzen ez duen
mundu batean biziraun nahian”.

Nigerian eta European salduko da filma, eta
horrek neurri batean *Superzebraman* ere film-
zebra izatea dakar. Nigeriarrentzako erakarga-
rri izan behar du, eta baita europar-
rentzako ere. Urtasunen ustez,
Nigeriako publikoa nahiko iraba-
zia du filmak, baina European akats
teknikoak barkatuko zaizkion
esperantza du. European errepota-
jea izango da, ordea, ziur aski,
arrakasta handiagoa izango duen
produktua, eta filma, aldiz, Nigerian erakarga-
rrien egingo zaiena.

Dena ongi bidean, baina, filma izango da
urtea bukatu aurretik lehen-lehenik ikusi
ahal izango dena. Hiru eurotan jarriko du
salgai kaleko saltzaileen bidez, eta gero
webaren bidez ere bai. Atzean lagunduko
duen erakunderik izan gabe, hiru modu eza-
rri ditu Urtasunek nahi duenak laguntza
eskain diezaion. Webaren bidez (www.superzebraman.com) filmaren kamiseta erostea da
lehen aukera, eta hori eginez gero, kreditue-
tan eroslearen izena ere azalduko da produk-
tore gisa. Ateratzen denean filma kaleko sal-
tzaileen bidez erostea da bigarren aukera, eta
nola egin den azaltzen duen dokumentala
erostea hirugarrena. ■

**Harpidedun egin zaitez 44€
eta opari gisa liburu hauetako bat:**



El autor y su sombra
Alfonso Sastre



Cuadernos escénicos
de San Francisco
Celama



Celama
Luis Mateo Díez
Fernando Urdiales

ARTE ESZENIKOEN ALDIZKARIA
ARTEZ

44€ (Bez eta bidalketa gastuak
barne), 12 zenbaki (bat hileko) urte betez

Abantailak:

- %25 beherapena Artezblai Argitaletzeko liburuetan
- %5 beherapena Yorick liburutendean eros daitezkeen gainontzeko liburuetan

Tel: 944 795 287

www.artezblai.com

artez@artezblai.com